

Euskara Getxon 2010

Azterketa Soziolinguistikoa

AURKEZPENA

Getxon Euskarak badu etorkizunik, Euskara bera da Etorkizuna. Getxoko euskararen errealitatera hurbilduko gaituen dokumentuaren aurkezpena egin nahi dizuet honako adierazpenekin.

Urte batzuk dira Getxoko EBPnaren bidez euskararen normalizazioaren bidean urrats txiki batzuk ematen hasi ginela. Bidea hasita dago, baina ez nituzke ahaztu nahi erronka honetako protagonista nagusiak: getxotarrak eta Getxoko eragile sozialak; beraiek izan baitira dokumentu honetan erakusten den euskararen aurrerakadaren eragile aktiboak.

Datuak edozeinek ikusi eta kritikatzeko moduan, hor daude argi. Getxon euskararen egoera bertoko hizkuntzak izan beharko lukeenera doa azken urteotan herritarren eta Getxoko giza eragileek egindako lanagatik.

Alkate aukeratu nindutenean, pentsatu izan nuen zaila izan behar zela euskararen alde lan egitea eta Getxo moduko herri bat euskalduntzea, eta ez da hala izan. Herri honek daukan euskararen aldeko jarrerarekin, indarrarekin eta borondatearekin, "erraza" izan da honako emaitzak lortzea.

Dokumentu honetan agertzen diren emaitzek elkarlanean jarraitzeko lagundu behar digute, eta konplizitate horren bitartez euskararen erabilpenean eman beharreko pausoak bultzatzeko balio behar dute. Administrazioak, gizarte eragile eta herritarrekin bat eginez, euskaraz bizitzeko eskubideak bermatu eta euskaraz bizitzeko oinarriak jarri behar ditu.

Gure ondorengo urratsa, hurrengo plana gauzatzea izango da, eta horretan ere denon kolaborazioa beharko dugu, Euskara guztiona delako eta Euskara bera delako etorkizuna.

Imanol Landa Jauregi
Alkatea

1. METODOLOGIA

2. EUSKARAREN EZAGUPENA GETXON

- 2.1. Bilakaera demografikoa
- 2.2. Euskararen jakite maila
- 2.3. Ama-hizkuntza
- 2.4. Etxeko hizkuntza

3. KALE ERABILERA GETXON

4. EUSKARAREN PRESENTZIA GETXOKO GIZARTE BIZITZAN

- 4.1. Irakaskuntza
 - Irakaskuntza ez-unibertsitarioa
 - Hezkuntza ez arautua
 - Hartzaindegia
- 4.2. Helduen euskalduntze-alfabetatzea
 - Getxoko Euskaltegiak
- 4.3. Immigrazioa
- 4.4. Lan-mundua. Merkataritza
- 4.5. Elkarrekin
 - GEHI: Getxo Euskalduntzeko Hitzarmena
 - Euskararen presentziak irol elkarrekin.
- 4.6. Kulturgintza
 - 4.6.1. Jaialdiak eta jarduerak nagusiak
 - 4.6.2. Udal liburategiak
 - 4.6.3. Getxoko liburu-dendak
- 4.7. Hedabideak eta Teknologia berriak
 - 4.7.1. Hedabideak
 - 4.7.2. Teknologia berriak
 - 4.7.3. Publizitatea
- 4.8. Elizak

5. GETXOKO UDALA

- 5.1. Euskara Zerbitzua
- 5.2. Udala

1.METODOLOGIA

Euskarak Getxon bizi duen egoera aztertzeko argibide metodologiko batzuk ematea funtsezkoa da. Gainera, horrela, aurrerantzean analisiak irizpide berdinez egin ahal izango dira.

Diagnosi hau jasotako datuetan eta horien hausnarketatik ondorioztatutako emaitzetan oinarritzen da. Horretarako bi teknika mota ezberdin erabili dira: Teknika kuantitatiboa eta kualitatiboa.

1.1. TEKNIKA KUANTITATIBOA:

Teknika honetan, batetik, datu-bilketa (bigarren mailako datuak) egin da, zenbait iturri kontuan hartuta:

- www.eustat.es
- www.getxo.net
- Getxoko Udaleko erroldako datuak
- Erakundeak: HABE, Eusko Jaurlaritzako Estatistika Saila, Getxoko Hizkuntza Eskola...
- www.ikuspegi.org
- Udaleko zenbait sailek egindako txostenak (kirol elkartekoa, etorkinena...)

Bestetik, *Euskara Zerbitzutik lehen mailako* datuak lortu eta aztertu dira. Horretarako, bi tresna erabili dira:

- Inkestak:¹
 - **Getxoko elkarteak:**
 - **56 elkarteei**² egin zitzaizen inkesta (ikerketaren lagin errorea % 6,5ekoarekin, eta % 95eko konfiantza mailarekin).
 - Lehendabizi, elkarte guztien analisi orokorra egin da: kideen kopurua, elkartearen izaera, elkarte mota eta jardueren azterketa kontuan hartu dira.
 - Enpresa pribatuak, desagertutako elkarteak, pertsona fisikoak, talde erlijioso edota enpresen menpeko elkarteak eta etorkinen elkarteak zerrendatik kendu dira. Aldi berean, GEHI programaren barruan hitzarmena sinatu zuten elkarten diagnostia egingo da, hitzartutakoen jarraipena eta eboluzioa ezagutzeko asmoz.
 - Era berean, elkarteak jardueren arabera multzokatu dira, azterketa taldeka ere egin ahal izateko.
 - **Getxoko ikastetxeak:** Euskara Zerbitzutik banan-banan mezu elektroniko bat bidali zitzaizen ikasle etorkinen matrikulazio kopuruak jakiteko asmoz. Kasu batzuetan, telefonoz ere hitz egin zen ikastetxeko arduradunekin, ikastetxe batzuen egoera berezia azaltzeko.
 - **Getxoko liburu-dendak:** Telefonoz banan-banan deitu genien Getxoko liburu-denda guztiei inkesta labur bat egiteko, euskarazko salmentak zeintzuk ziren jakiteko asmoz.

¹ Honekin batera doakizue eranskina

² Honekin batera doakizue eranskin batean inkestaturiko elkarte guztien zerrenda

- Kale neurketarako fitxak³:
 - Neurtzaile bakoitzak kalean entzundako pertsona guztien datuak hiru **fitxa eredutan⁴** bildu zituen.
 - Neurketa egiteko, **8 ibilbidetan** banatu zen herria.
 - **Hiru neurtalditan** egin zen neurketa.

- Merkatal-establezimenduak neurtzeko fitxak:
 - Fitxa baten bitartez, ibilbide ezberdinetan banatuz, Getxoko zenbait establezimendu motaren elementu batzuen analisia egin zen; hots, errotulu nagusi, ate eta erakusleihoena.

1.2. TEKNIKA KUALITATIBOA:

Getxoko beste zenbait esparrutan ere elkarrizketak egin ziren:

- **Hurtzaindegiak:**
 - Getxoko **12** erakundetan egin ziren elkarrizketak.
 - Erakundeek euskararen alorrean egiten duten lana: egoera ezagutu eta antolatzen dituzten jarduerak eta zailtasunak ikustea izan da helburua.

- **Getxoko elizak:**
 - Getxoko **10** eliza eta parrokiak arduradunei telefonoz deitu zitzaie, bertako meza eta beste ekintza batzuetan euskarak duen presentziari buruz galdetzeko.

³ Prozesu honen azalpen sakonagoa aurrerantzean ikusiko da


⁴ Fitxa-ereduak eranskinean doaz

2. EUSKARAREN EZAGUPENA GETXON

Gaur egun, euskarak Getxon bizi duen egoera ezagutzeko, ezinbestekoa da herriko biztanleriaren ezagupen mailari buruzko informazioa aztertzea.

2.1. BILAKAERA DEMOGRAFIKOA


2010eko datuen arabera, Getxon **81.626** lagun bizi dira. Beraz, demografikoki Getxok garrantzi handia du Bilbo Handian eta Bizkaia mailan.



Iturria: Getxoko Udal Erroldako datuetan oinarrituta egindako taula

Getxon, % 47,1 gizonezkoak dira, eta %52,9 emakumezkoak. Bestetik, biztanleria GEHIENA **45-64 urte** bitartekoa da (biztanleria osoaren %30,37).


GETXOKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA:



Iturria: Getxoko Udal Erroldako datuetan oinarrituta egindako taula

Grafikoan argi islatzen da Getxo nabarmen hazi dela azken urteetan, eta hazkunde horrek segida izan du 2001era arte. 1970. urtean zituen 39.153 biztanleetatik 2010ean 81.626 biztanle izatera pasatu da.

KONPARAKETA GETXO-BILBO HANDIA-BIZKAIA-EAE BIZTANLERIA



Iturria: EUSTATEko 2009ko abenduak datuetan oinarrituta egindako taula

Grafiko horren arabera, Getxoko populazioa Bilbo Handiaren %9,2 da, Bizkaiaren %7a eta EAEn %3,7.

2.2. EUSKARAREN JAKITE MAILA GETXON:

EUSKARAREN JAKITE MAILA GETXON. BILAKAERA (2 URTE BAINO GEHIAGO)

GETXO	1981		1986		1991		1996		2001		2006	
	Totalak	%	Totalak	%	Totalak	%	Totalak	%	Totalak	%	Totalak	%
Euskaldunak	6.469	9,9	9.811	12,92	11.211	14,3	15.539	19,3	15.975	19,9	23.006	29
Ia euskaldunak	15.166	23,21	20.424	26,90	21.449	27,37	22.430	27,8	25.313	31,5	21.756	27,4
Erdaldunak	43.704	66,88	45.687	60,18	45.689	58,31	42.727	53	38.981	48,6	34.568	43,6
Totalak	65.339	100	75.922	100	78.349	100	80.696	100	80.269	100	79.330	100

Iturria: EUSTATEko datuetan oinarrituta egindako taula

Oharra: Portzentajeak bertikalak dira

Biztanleria osoa kontuan hartuz, urtez urte, euskaldunen kopuruak hazkundera izan du: 1981. urtean %10 ziren, eta 2006an, aldiz, %29.

Era berean, urteik urtera erdaldun elebakarren kopuruak beheranzko joera izan du: 1981ean %66,8 ziren eta 2006. urtean %43,6.

EUSKARAREN JAKITE MAILA LURRALDEAREN ARABERA. 2006


2006	Bilbo Handia		Bizkaia		Getxo	
	Totalak	%	Totalak	%	Totalak	%
Euskaldunak	207.659	24,5	347.302	31,3	23.006	29
Ia euskaldunak	202.161	23,8	255.238	23	21.756	27,4
Erdaldunak	436.804	52	505.669	45,7	34.568	43,6
Totalak	846.624	100	1.108.209	100	79.330	100

Iturria: EUSTATEko datuetan oinarrituta egindako taula

Oharra: Portzentajeak bertikalak dira

Ehunekoetan, euskaldunen multzo handiena Bizkaiak du. Erdaldunak, proportzionalki Bilbo Handian biltzen dira, batik bat.

EUSKARAREN EZAGUPENAREN BILAKAERA ADINKA BILBO HANDIAN. EHUNEKOAK.




Iturria: EUSTATEko datuetan oinarrituta egindako taula

Oharra: Portzentajeak bertikalak dira

Gorakada nabarmenena 2-14 urte bitarteko biztanleekin gertatu da: 1981ean euskaldunak % 5,2 ziren, eta 2006an, ordea, %58,3.

65 urtetik gorako getxotarren artean, aldiz, euskaldunen kopurua beti murrizta izan bada ere, beherakada izan da horien artean, %13,2tik **%9ra** 2006an.

EUSKARAREN EZAGUPENAREN BILAKAERA ADINKA GETXON. EHUNEKOAK



Iturria: EUSTATEko datuetan oinarrituta egindako taula
Oharra: Portzentajeak bertikalak dira

SKALDUNEN TIPOLOGIA GETXON 2006

Euskaldunak	23.006	%29
Euskaldunak. Alfabetatuak	19.748	85,8
Euskaldunak. Erdizka alfabetatuak	2.747	11,9
Euskaldunak. Alfabetatugabeak	511	2,2
Ia euskaldunak	21.756	%27,4
Ia alfabetatuak	13.995	64,3
Ia alfabetatugabeak	3.376	15,5
Ia pasiboak	4.385	20,2
Erdaldunak	34.568	%43,6

Iturria: EUSTATEko datuetan oinarrituta egindako taula


Taula horren arabera Getxon 2006. urtean ia **%30** euskalduna zen. Horietatik, asko euskaldun alfabetatuak ziren (%85,8a).

Getxon, ia %30 euskalduna da.

2.3. AMA HIZKUNTZA

Getxo osoari dagokionez, ama-hizkuntza euskara izan dutenen artean, 1986. urtetik aurrera jaitsiera bat izan bazuen ere, 2006an **%7,5** da (1986. urtean bezala). Gainera, 2006an ama-hizkuntza euskara eta GAZTELANIA batera dutenak %12 dira.


AMA HIZKUNTZAREN BILAKAERA GETXON. EHUNEKOAK



Iturria: EUSTATEko datuetan oinarrituta egindako taula
Oharra: Portzentajeak bertikalak dira

Duela gutxi arte, ama-hizkuntza euskara zutenen kopururik handienak adin-tarte zaharretan aurkitzen genituen. Grafiko honek joera aldatzen doala erakusten du:

AMA HIZKUNTZA EUSKARA GETXON ADINKA. EHUNEKOAK




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako datuetan oinarrituta egindako taula
Oharra: Portzentajeak bertikalak dira

Ama-hizkuntza euskara izateari dagokionez, 74 urtetik gorako getxotarrak batez bestekoaren gainetik daude: 75 urtetik gora ama-hizkuntza euskara dutenak % 13,8 dira.

Dena den, aspaldiko partez, euskaldun gehiago dago gazteen artean: ama-hizkuntza euskara eta ama-hizkuntza euskara eta gaztelania aldi berean ikusita, 5-14 urte bitartekoen artean dauden getxotarren ehunekoa **39,8** da.

Honako grafikoan getxotarren ama-hizkuntza mota guztiak adierazten dira:

AMA-HIZKUNTZA GUZTIAK GETXON ADINKA. EHUNEKOAK




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako datuetan oinarrituta egindako taula
Oharra: Portzentajeak bertikalak dira

Azken urteetan beste egoera bat azaltzen zaigu: gero eta getxotar gehiagoren ama-hizkuntza euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat da. Horrek, etorkin kopuruaren hazkundearekin zerikusi zuzena du, jakina.

2.4. ETXEKO HIZKUNTZA:

ETXEKO HIZKUNTZAREN BILAKAERA GETXON. EHUNEKOAK



Iturria: EUSTATEko datuetan oinarrituta egindako taula

1991. urtetik 2006ra Getxon etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoa zertxobait igo da, %1,42 da eta. Euskara baino ez, edo gaztelaniarekin batera erabiltzen dutenen ehunekoa 2006an **8,9** da.

3.KALE ERABILERA GETXON

Kale-erabileraren neurketetatik lortutako datu kualitatiboek funtsezko informazioa eskaintzen dute, hizkuntza normalizazio-prozesuaren arrakasta-mailaren indizerik fidagarrienetako bat hiztunek hizkuntzaz egiten duten erabilera baita. Soziolinguistikaren teoria nagusi guztiak bat datoz esatean hiztunen arteko harreman ohikoenak eta gertuenak direla hizkuntzaren bizi-indarraren islarik garbiena. Beraz, euskararen erabilerak kalean informazio oso aberatsa eskaintzen du, euskararen presentzia sozialaz, prestigioaz, erabilera-mailez, irabazi eta galerez, etab.

	1989	1993	1997	2001	2006
Bizkaia	%8,1	%9,1	%9,7	%11	%10,4
Euskal Herria	%10,8	%12	%13	%13,5	%14,2

Iturria: Bat Soziolinguistika aldizkaria, 2006

Bizkaian, 1997tik 2006ra euskararen presentzia %10-11 artean dago. Atzerakada handirik ez da egon, baina ondorioztatzen da azken hamarkada honetan aurrerapen nabarmenik ere ez dela izan.

Euskararen erabilerari dagokionez, bizkaitarrak gipuzkoarrak baino erdaldunagoak dira, baina arabarrak, nafarrak eta iparraldekoak baino euskaldunagoak. Dena den, harritzekoa da Bizkaian euskararen kale-erabilerak atzera egin izana, euskararen ezagutzari dagokionez, Bizkaiko euskaldunen kopurua gora baitoa atzerapausorik edota etenik gabe.

Oro har, esan daiteke Euskal Herrian, bere osotasunean hartuta, euskararen erabilerak gora egin duela.

3.1. 2010EKO GETXOKO KALE NEURKETAREN PROZESUA:

A) NEURTALDIAK:

3 neurtaldi burutu ziren:

1. Asteazken arratsaldea: 18:00etatik 20:00etara
2. Larunbat goiza: 13:00etatik 15:00etara
3. Larunbat arratsaldea: 18:00etatik 20:00etara

Neurketak honako **2 egunetan** egin ziren:

1. 2010eko azaroaren 17a, asteazkena
2. 2010eko azaroaren 20a, larunbata

B) ZONALDEAK:

Neurketa egiteko 8 ibilbidetan banatu da herria:

1. IBILBIDEA: *Santa Eugenia, Gobelaurre, Antiguu Golf*
2. IBILBIDEA: *Areetako Kaia, Zugatzarte, Las Mercedes*
3. IBILBIDEA: *Kale Nagusia, Bizkaia Zubia, Ibaigane*
4. IBILBIDEA: *Arriluze, Ereagako Kaia, Portu Zaharra*
5. IBILBIDEA: *Algortako etorbidea, Euskal Herria, Telletxe*
6. IBILBIDEA: *Fadura, Villamonte, Salsidu*
7. IBILBIDEA: *Salsidu, Sarrikobaso, Ollaretxe*
8. IBILBIDEA: *Benta, Maidagan, Bidezabal*

C) NEURKETA SISTEMA/ PROZEDURA:

Zonalde bakoitzean bi neurtzaile ibili ziren, beraz, denetara **16** pertsona.

Neurtzaile bakoitzak ibilbide eta ordu horietan kalean entzundako pertsona guztien datuak fitxa eredu batean bildu zituen. (*Eranskinean dago*)

Neurtu diren pertsonak mintzakideak izan dira, elkarrizketan ari ziren pertsona guztiak. Bestetik, adina kalkulatzeko, gutxi gorabehera hartu da, jakina.

D) UNIBERTSOA:

2006⁵. urteko erroldaren arabera, Getxoko zuzenbidezko biztanleria **81.626** lagunekoa da. Kontuan izanik neurketan entzun direnak **5.525** biztanle izan direla (**%6,76**), esan daiteke lortutako datuen fidagarritasuna ona dela.

⁵ 2006. urteko datua aukeratu da, zuzeneko konparazioa egiteko erroldaren erreferentzia hartu behar baita erreferentzia gisa, eta bai hau, bai biztanleriaren euskara maila 2006an egin zen azken aldiz.

3.2. EMAITZA OROKORRAK:

Entzundako pertsonak	5.525
Euskaraz ari zirenak	509
%	%9,2


Konpara dezagun datu hau ezagupen-mailarekin:

Getxoko biztanleria osoa kontuan hartuta (81.254), horrek esan nahi du **%28,3** (23.006⁶ pertsona) euskalduna dela.

Konparazio bat eginez, 2006an Bizkaian 347.302 euskaldun daude. Biztanleria osoa kontuan hartuz (1.136.852), horrek esan nahi du Bizkaian euskaldunak % 30,5 direla.

Datu horiek euskarak Getxon bizi duen errealitatearen lehen informazio esanguratsua eskaintzen digute. Esan daiteke Getxon euskararen erabilpena agerikoa baino, ezkutukoa dela.

Hurrengo grafikoan 2001eko eta 2010eko kale-neurketak konparatzen dira:




Iturria: Diagnosi honetarako propio jasotako datuak

Grafikoak argi eta garbi erakusten du 9 urtean euskararen erabilera Getxoko kaleetan aurrera egin duela 2001etik, **4,4** puntu, hain zuzen.

⁶ 2006. urteko datua (Iturria: EUSTAT)

3.3. ADINAREN ARABERAKO ANALISIA

Adin-taldeen artean dauden desberdintasunak aztertzen badira, hauek dira lortutako emaitzak:




Adin-taldeen artean azaltzen diren aldeak oso txikiak dira. Hala ere, badira puntu batzuk nabarmentzeko:

- Haurren artean euskararen erabilera nabarmentzen da, nahiz eta helduek ere ehuneko handia erakutsi.
- Adinekoak dira euskara gutxien egiten dutenak.

3.3.1. EUSKARA HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA


Aztertzeko beste aldagai garrantzitsu bat haurren aurrean euskararen presentziak indar gehiago daukan edo ez ikusi nahi izan da. Ondoko grafikoak argi eta garbi islatzen du haurrak daudenean euskararen erabilera gorakada nabarmena dagoela:

EUSKARA HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA




Bestetik, euskararen erabilpenak gora egin du haurrak eta nagusiak beraien artean hizketan ari direnean:

HAURREN AURREAN EUSKARAREN ERABILERA




3.4. SEXUAREN ARABERAKO ANALISIA



Generoa kontuan hartuta, euskararen erabilera nahiko parekatuta dago Getxon, nahiz eta emakume getxotarren artean euskararen erabilera zertxobait handiagoa izan.

Adina kontuan hartuta, euskararen erabilera Getxon modu honetan gelditzen da:


GENEROA ETA ADINA. Ehunekoak



Nahiko parekatuta dago sexuen artean euskararen erabilera, helduen artean izan ezik: emakume helduen artean euskararen erabilera handiagoa da Getxon.

3.5. ZONALDEAREN ARABERAKO ANALISIA:

Honako grafikoan, neurtaldi guztiak kontuan hartuz, Getxoko auzoetan euskararen erabilpen-maila azaltzen da:



Euskararen erabileraren batez bestekoa muga bezala erabiliz, **7. ibilbidean** euskararen presentzia bereizgarria da, Algortako auzoan hain zuzen.

Hala ere, kasu bakoitzean laginak txikiak direnez, ezin daiteke baieztatu auzo eta neurtaldi horretan euskara gehiago erabiltzen denik. Hori baieztatu ahal izateko, kale neurketak urtero egin beharko lirateke.

Oro har, neurtaldi guztiak kontuan hartuz, **5. eta 7. ibilbideetan** euskararen presentzia handiena dela esan ahal da. Bereziki adierazgarria da **haurren presentziaren** arabera neurtaldian euskararen presentzia **7. ibilbidean**, euskararen erabilera %30,5 izan da eta.

Nahiz eta Getxoko auzo guztietako kaleetan euskararen presentzia igo den azken 9 urtean, grafikoan argi eta garbi ikusten da gorakada nabarmenena **1, 5, eta 7. ibilbideetan**.

Ezagutzaren eta erabileraren arteko desoreka: Euskara ikasten ari direnak gero eta gehiago diren arren, euskararen presentzia Getxoko kale bizitzan eskasa da oraindik.

4.EUSKARAREN PRESENTZIA GETXOKO GIZARTE BIZITZAN

4.1.IRAKASKUNTZA

4.1.1. IRAKASKUNTZA EZ UNIBERTSITARIOA:

Ondoko grafikoan, ereduak Getxoko ikastetxeetan ikasten diharduten ikasleen banaketa 2010-2011 ikasturtean azaltzen da:


2010-2011 IKASTURTEA GETXON. EREDUKA ETA ADINKA

2010-2011 IKASTURTEA	A ereduak		B ereduak		D ereduak		GUZTIRA	
	N	%	N	%	N	%	N	%
HAUR HEZKUNTZA	455	20,9	639	29,4	1.078	49,6	2.172	27,4
LEHEN HEZKUNTZA (6-12 urte)	614	21	858	29,4	1.446	49,6	2.918	36,9
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (12-16 urte)	552	33,5	364	22,1	732	44,4	1.648	21
BATXILLERGOA (16-18 urte)	417	55,3	0	0	337	44,7	754	9,5
LANBIDE HEZIKETA	346	82	0	0	76	18	422	5,3
GUZTIRA	2.384	%30,1	1.861	%23,5	3.669	%46,4	7.914	%100

Iturria: Getxoko Udal Hezkuntza arloko datuetan oinarrituta egindako taula

Taulan, argi ikusten da A ereduaren presentzia, batez ere, irakaskuntza ertainetan. D ereduaren presentzia, aldiz, adierazgarria da Haur eta Lehen Hezkuntzan.


2010-2011 IKASTURTEA BIZKAIAN ADINKA. EHUNEKOAK



Iturria: EUSTATEko datuetan oinarrituta egindako grafikoa

Getxoko matrikulazio-datuetan euskal ereduak batez ere lehen mailako hezkuntzan daukate indar handiena Bizkaian.


KONPARAZIO GRAFIKOA HIZKUNTZA EREDUKA GETXON. EHUNekoAK



Iturria: Getxoko Udal Hezkuntza arloko datuetan oinarrituta egindako taula

Bizkaiko datuetara jotzen badugu, honako grafikoan islatzen den bezala, D ereduaren presentzia Bizkaian, Getxon baino handiagoa da, %55,4, eta Getxon %46:

2010-2011 IKASTURTEA BIZKAIA HIZKUNTZA EREDUKA. EHUNekoAK



Iturria: EUSTATEko datuetan oinarrituta egindako grafikoa

KONPARAZIO TAULA ADINKA GETXON. EHUNEKOAK


HEZKUNTZA-ETAPA	1990-1991			2007-2008			2009-2010			2010-2011		
	A	B	D	A	B	D	A	B	D	A	B	D
HAUR HEZKUNTZA (0-6 urte)	53,8	17	29,2	25	26,2	49	21	26	53,2	20,9	29,4	49,6
LEHEN HEZKUNTZA (6-12 urte)	55,3	20,5	24,2	24,4	27,5	48,2	21,2	29,8	49	21	29,4	49,6
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (12-16 urte)	79,8	4,8	15,4	44,1	14,5	41,4	36,9	18,3	44,8	33,5	22,1	44,4
BATXILLERGOA (16-18 urte)	84,9	0	15,1	59,2	0	40,8	57	0	43	55,3	0	44,7
LANBIDE HEZIKETA	93,2	0	6,8	94,3	0	5,7	81,7	0	18,3	82	0	18

Iturria: Getxoko Udal Hezkuntza arloko datuetan oinarrituta egindako taula

Aurreko datuen logikari jarraituz, taulan argi ikusten da A ereduaren presentzia, batez ere, erdi mailako ikasketetan. Bestetik, ikusten da Batxilergoak duela D ereduaren gorakada handiena: 1990. urtetik gaur egun arte 29,6 puntu gora egin du. Horrez gain, azpimagarria da DBHn D ereduaren igoera.

D ereduaren gorakada txikiena *Lanbide Heziketan* izan da. Gaur egun, ziklo mota horretan euskal ereduaren eskaintza oso baxua da oraindik.

HAUR HEZKUNTZAKO MATRIKULAZIOEN BILAKAERA EREDUKA GETXON



Iturria: Getxoko Udal Hezkuntza arloko datuetan oinarrituta egindako grafikoa

Goiko grafikoan argi ikusten da eredu bakoitzaren bilakaera eta joera: **D ereduaren** goranzko bidea, 20 urtean haur hezkuntzako matrikulazioa 20 puntu igo da; **A ereduak** 32 puntu beherantz egin du; **B ereduari** dagokionez, nabarmena da azken bi urteetan izandako gorakada. Dena den, oro har, 1990. urtetik eredu mota hori 12 puntu igo da.

D ereduak, azken 20 urteetan 20 puntu gora egin du Getxoko ikastetxeetan.

4.1.2. HEZKUNTZA EZ ARAUTUA

GETXOKO AKADEMIAK:

GEHI, Getxon Euskara sustatzeko hitzarmenean, akademiekin ere dihardu lanean, garrantzitsua baita umeak eta nerabeak eskolatik kanpo egiten dituzten jarduerak euskaraz ere egin ahal izatea.

- ✓ Zerbitzua euskaraz eskaintzen duten akademiak: **11**
- ✓ Euskara sustatzeko konpromisoren bat hartu duten akademiak: **9**

Lanbide Hastapenerako Zentroan 2010/2011 ikasturtean **102** ikasle egon dira matrikulatuta eta gaztelaniaz ikasi dute.

4.1.3. HAURTZAINDEGIAK

0 eta 6 urte bitarteko hurrekin lan egiten duten haur-eskolekin eta haurtzaindegiekin harremanetan jarri ondoren, zentro hauekin egin da elkarrizketa:

Datu orokorrak:


0 eta 6 urte bitarteko haur kopurua	1072 haur gutxi gorabehera ⁷	Zentro handienak 345 haur ditu eta txikienak 9. Haur gehienek euskaraz ulertzen dute. Zentroetatik kanpo, gaztelania da nagusi. Gurasoen % 17 gutxi gorabehera euskalduna da, ez baitakigu zehazki euskara erabiltzen duten edo ez.
Erakunde hauetan dauden langileen kopurua	141	Erakunde handienak 29 langile ditu eta txikienak 3.
Hurrekin aritzen diren langileen kopurua	109	Erakunde handienak 18 langile ditu eta txikienak 3.
Hurrekin aritzen diren langileen hizkuntza gaitasuna	Gaitasun osoa: % 50 gutxi gorabehera	Hurrekin aritzen diren langileen euskara maila oso ezberdina da erakundearen arabera. Alde handia dago erakundeen artean: zentro batzuetan euskara profila langile guztiak izatea ezinbestekoa da (adibidez <i>Egunsentia Haurreskolan</i>) eta besteetan ez dute eskatzen.

Aipagarria da **0 eta 6** urte bitarteko haurrentzako Getxoko zentro asko Algortan daudela (zentro guztien % 50, hain zuzen, Algortakoak ziren).

⁷ Matrikulazio epeak urtean hiru aldiz egiten direlako, datuak jaso diren momentuan zeuden haurrak kontuan hartuz erabaki da.

Bisitatu diren haurtzaindegi eta haur-eskoletatik, % 41,6 B eredukoak dira. Gainerako %33a D ereduan daude:

HAURTZAINDEGIETAKO EREDU MOTAK. ABSOLUTUAK




Iturria: Diagnosi honetarako propio jasotako datuak

Euskararen erabilerari dagokionez, gutun eta inprimaki gehienak gaztelaniaz bakarrik egiten dira eta % 45 elebidunak izaten dira.

Normalean, telefonoz eta aurrez aurre erabiltzen den hizkuntza nagusia gaztelania da; bi hizkuntzak erabiltzen dituzten zentroek %42 osatzen dute. Beraz, langileen arteko harreman formalean %25 euskara hutsean egiten da eta %33,3 gaztelania hutsean.


HAURTZAINDEGIETAKO HIZKUNTZA HARREMAN FORMALETAN. ABSOLUTUAK



Iturria: Iturria: Diagnosi honetarako propio jasotako datuak

Oharra: Zenbaki absolutuak dira

HAURTZAINDEGIETAKO HIZKUNTZA HARREMAN INFORMALETAN. ABSOLUTUAK



*Iturria: Diagnosi honetarako propio jasotako datuak
Oharra: Zenbaki absolutuak dira*

Grafikoa aztertuta, lehenik eta behin, aipagarria da Getxoko haurtzaindegi batean ere ez dela langileen artean *harreman informaletan* euskara hutsean egiten. Horrek esan nahi du langileen arteko harreman informaletan askoz gutxiago erabiltzen dela euskara harreman formaletan baino. Elkarrizketatu askoren iritziz, arrazoi nagusia hauxe da: hezitzaile euskaldun berrien artean gaztelaniaz komunikatzeko erraztasun handiagoa dute.

Haurrekin lan egiteko euskara maila handirik behar ez denez, normalean, haur-eskoletan eta haurtzaindegietan dagoen euskara mailaren eskaera nahiko baxua da. Irakasleak kontratatzerakoan, ia zentro guztietan hartzen da kontuan euskara maila profil zehatz batzuk betetzea, baina askotan kanpora begira eta ez barrura begira.

- ✓ Aurreko ataleko matrikulazio-datuaren analisian oinarrituz, haurtzaindegien hizkuntza eskaintza ez dator bat herriko eskaerarekin. Dena den, azken urtean (2010ean) egoera zertxobait aldatu da, *Getxoko Haurreskola* ireki dute eta, D ereduak soilik eskaintzen dutelako.
- ✓ Getxoko hizkuntza normalizazio-prozesurako funtsezkoa litzateke haurtzaindegi eta haur-eskoletatik ateratzen diren haur gehienak oinarrizko ezagupen linguistikoekin, eta euskararekiko lehen harreman sendoarekin ateratzea.
- ✓ Azpimarratu behar litzateke gaur egungo egoeran B eta D ereduak direla haurren euskalduntzea bermatzen duten ereduak eta txikitatik euskara ongi ikasteak duen garrantzia.


4.2. HELDUEN EUSKALDUNTZE ALFABETATZEA

EUSKALDUNTZE ALFABETATZE DATUAK GETXON 2007-2010 URTEAK

Ikasturtea	Ikasle getxotarrak Getxoko zentroetan	Ikasle kopurua Getxoko euskaltegietan eta bestelako zentroetan						GUZTIRA
		Udal euskaltegia	Lauaxeta AEK	J.A. Agirre	Bai&By	Romoko Euskara tailerrak	Ulibarri Euskaltegia	
2007-08	1.038	594	344	187	166	86	9	1.386
2008-09	1.099	658	423	194	210	96	28	1.609
2009-10	1.050	575	410	214	149	90	-	1.438
2010-11	823	433	302	179	98	83	-	1.095

Azken 4 urteetan euskara ikasle getxotarren kopuruak beheranzko joera izan du. Gauza bera gertatu da Getxoko euskaltegietan eta bestelako zentroetan.

IKASLE GETXOTARRAK EUSKARA IKASTEN GETXOKO ZENTROETAN ETA KANPOKO ZENTROETAN SEXUKA. ABSOLUTUAK



Iturria: HABEko datuetan oinarrituta egindako grafikoa

Euskararen erabilpenaren feminizazioa: Grafikoa argi eta garbi erakusten du emakumezkoek gizonezkoek baino euskara gehiago egiten dutela, batez ere adin gazteen artean. Azken ikasturtean, adibidez, **1.345** ikasletik **%65,6** emakumezkoak izan dira.


Datu horien arabera, garbi dago azken urteetan aldatu egin direla sexuaren araberako joerak hizkuntza erabilerari dagokionez. Horrek zerikusi handia du gizartean izandako aldaketekin: aldaketa sakonen artean emakumearen egoera biziki aldatu da eta, horrekin batera, gizartean betetzen dituen rola ere bai.

Errealitate hau azaltzeko, zenbait arrazoiren artean hauek daude:

- ✓ Perspektiba eta errealitate profesionalei dagokienez, emakumezkoek bete ohi dituzten lanbideetan euskararen eskaera altuagoa da. Adibidez haur-zaintzaileak, administrariak, irakasleak...
- ✓ Eskolaz kanpoko jardueri dagokienez, neskek eta mutilek oso praktika ezberdinak daukate: Mutilengan kirolek eragin berezia dute (eta kirol-esparrua oso erdalduna da oraindik Getxon); nesken presentzia, berriz, askoz adierazgarriagoa da beste era bateko jardueretan: ludotekak, aisialdi-taldeak, dantza-taldeak...

Sexuen arteko rol-banaketak eragin zuzena du egoera minorizatuan dauden hizkuntzen erabilpenean.

IKASLE KOPURUA GETXOKO ZENTROETAN 2010-2011 IKASTURTEAN. ABSOLUTUAK



Iturria: HABEko datuetan oinarrituta egindako grafikoa

Getxoko Udal Euskaltegiak biltzen ditu ikasle gehienak, **433** lagun hain zuzen.

Getxoko Hizkuntza Eskola:

Ikasturtea	Ikasle kop.
2007-2008	571
2008-2009	519
2009-2010	535
2010-2011	575

Uztarri ume euskaltegia:

2010-2011 ikasturtea	Ikasle kop.
Algorta	60
Areeta	110
Getxoko Andra Mari	25
Guztira	195

Oharra: 6-16 urte bitarteko ume eta gazteei ematen dizkiete klaseak, astean bi egunetan.

Helduen Hezkuntza Iraunkorreko zentroa:

Ikasturtea	Euskara irakasgai bezala ikasten
2007-2008	98
2008-2009	127
2009-2010	108
2010-2011	87

1.300 getxotar baino gehiagok dihardu euskara ikasten Getxoko euskaltegietan

4.3. IMMIGRAZIOA

4.3.1. DEMOGRAFIA

ETORKINAK GETXON SEXUKA. ABSOLUTUAK

Emakumezkoak		Gizonezkoak		Guztira
N	%	N	%	
3.262	%59,56	2.215	%40,44	5.477

Iturria: Getxoko Udal Errolda, 2010eko urria


Getxon etorkin gehienak emakumezkoak dira.

2010ean etorkinak Getxoko biztanleria osoaren **%6,71** dira.

Getxoko etorkinak EAEko biztanleria osoaren **%8,3** dira.

Eta, era berean, Bizkaian bizi diren etorkinen **%8,3**.


ETORKINAK GETXON HERRIALDEKA. EHUNEKOAK



Iturria: Getxoko Udal Erroldako 2010. urteko urriko datuetan oinarrituta egindako grafikoa

Getxon Hego Amerikako biztanleriak nabarmen egin du gora, 2005etik hona %60 baino gehiago baita. Kolektibo hori biztanleria osoaren %4,2 da Getxon. Bizkaian ere, Hego Amerikako biztanleen kopurua nabarmena da.

ETORKINAK GETXON. BILAKAERA



Iturria: Getxoko Udal Erroldako 2010eko urriko datuetan oinarrituta egindako grafikoa

Grafiko horrek argi eta garbi erakusten du Getxon etorkinen presentziak izugarritzko gorakada izan duela azken 12 urteetan.

ETORKINAK BIZKAIAN

2009		2010	
Giz.	Emak.	Giz.	Emak.
33.218	32.767	34.829	34.194
65.985		69.023	

Taula horren arabera etorkinak gutxi gorabehera Bizkaia osoaren %6 dira 2010ean.

2009	Bizkaia	Bilbo Handia	Getxo
Etorkinak	5,7	5,8	5,7
Biztanleria osoa	1.152.658	876.430	80.770

Taulan ikus daiteke Getxoko etorkinen kopurua Bilbo Handian eta Bizkaian dagoenaren parean dagoela.

AISA IKASTAROETAKO MATRIKULAZIO DATUAK

IKASTURTEAK	Guztira	Hegoameriketako ikasleak (%)
2005-2006	79	83,5
2006-2007	51	92,2
2007-2008	83	73,5
2008-2009	66	92,4
2009-2010	39	64,1
2010-2011	14	78,6

Iturria: Diagnosi honetarako propio jasotako datuak


Hego Amerikako jendeak beste ibilbide bat eginda dauka, horrexegatik AISako ikastaroetan kopuru handiena da. Gainera gaztelania aldeztu aurretik jakitea abantaila handia da.

- ✓ Europako eta Latinoamerikako atzerritarren beherakada Magrebeko eta Saharaz hegoaldeko etorkinen etorrerak orekatu du.
- ✓ Getxon europarrak biztanleria osoaren %1,5 dira.
- ✓ 2007an Errumania Europar Batasunera bildu zenetik, nazionalitate horrek gorakada adierazgarria izan du, bai Getxon, bai EAE osoan.
- ✓ Boliviarrak eta alemaniarrak dira ugariena Getxon.
- ✓ Gero eta ikasle etorkin gutxiagok parte hartzen dute AISA ikastaroetan; euskara ikastea 2. edo, batez ere, 3.mailako egitekoa da, euren egoera sozialak ez baitie uzten euskara ikasteko denbora askorik.
- ✓ Euskara Zerbitzuaren eta Immigrazio Unitatearen artean hausnarketarako eta lanerako Batzorde bat eratu da euskararen sustapenari eta erabilerari lotuta.

4.3.2. IRAKASKUNTZA:

2010-2011 ikasturtean, Getxoko ikastetxeetan Espainiatik kanpo etorritako **906** ikasle egon dira matrikulatuta. Getxoko ikasle guztien **%11,4** dira.

IKASLE ETORKINEN DATUAK GETXOKO IKASTETXEETAN. 2010-2011 IKASTURTEA. ABSOLUTUAK




Iturria: Diagnosi honetarako propio jasotako datuak

Ikasle etorkinen kopuru handiena Haur eta Lehen Hezkuntzan dago. Horrek azken urteetako etorkinen etorrerarekin zerikusia du. Bestetik, Hizkuntza ereduak kontuan izanda, DBHko A ereduak dugu ikasle

etorkin kopuru handiena, 199 ikasle hain zuzen. Hala ere, eredu euskaldunak gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira ikasle etorkinen aukeraketan.

IKASLE ATZERRITARRAK HEZKUNTZA SAREAREN ARABERA ETA EREDUKA GETXON. 2010-2011 IKASTURTEA. EHUNEKOAK




Iturria: Diagnosi honetarako propio jasotako datuak

Ikasle atzerritarrek, batik bat, sare publikoan eta A ereduan ikasten dute, %62,4k hain zuzen. Dena den, deigarria da sare pribatuan B ereduan dagoen etorkinen matrikulazioa, %56,1.

*Etorkinak, Getxoko ikastetxeetan **%11,4** dira, eta hauetatik **%17,2** D ereduan daude.*

*Guztira, ikasle etorkinen **%76,4k** sare publikoan ikasten du.*


IKASLE ATZERRITARRAK EREDUKA GETXON. 2010-2011 IKASTURTEA. EHUNEKOAK



Iturria: Diagnosi honetarako propio jasotako datuak

Ereduka aztertuta, ikasle etorkinen kopuru handiena A ereduari dagokionez, gainerako %43a B eta D ereduak hartzen dute.


IKASLE ATZERRITARREN KOPURUA MAILAKA ETA HIZKUNTZA EREDUEN ARABERA BIZKAIAN. 2009-2010 IKASTURTEA. EHUNekoak



Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko datuetan oinarrituta egindako grafikoa

Guztira Bizkaian, 2009-2010 ikasturtean **11.250** ikasle etorkin daude. Horiek, ikasle guztien **%8,15** dira. Gainera, ikasle etorkinen %34k D ereduari ikasten diete; %24,4k B ereduari eta %38,5ek A ereduari.

IKASLE ATZERRITARRAK HEZKUNTZA SAREAREN ETA HIZKUNTZA EREDUEN ARABERA BIZKAIAN. 2009-2010 IKASTURTEA



Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko datuetan oinarrituta egindako grafikoa

Grafikoaren arabera, Bizkaian ikasle etorkinak, batik bat, hezkuntza-sare **publikoan** daude; guztira **7.528**, ikasle, ikasle etorkin guztien **%70**.

Gainera, %38,5ek A ereduan ikasten du; %27,4k B ereduan eta %34k D ereduan. Getxoko ikasle etorkinekin alderatuz, Bizkaia osoan etorkin kopuru handiago batek ikasten du D ereduan.

4.4. LAN MUNDUA

MERKATAL ESTABLEZIMENDUAK: "GEHI euskara merkataritzara": 2003. urtean Getxoko Udalak "GEHI: EUSKARA MERKATARITZARA" izeneko egitasmoa jarri zuen martxan, merkataritza sektorean euskararen erabilera sustatzeko, lan-mundua, batez ere, merkataritzak eta zerbitzugintzak osatzen baitute. Beraz, udalerriri begira, indar handia duten sektoreak dira eta kulturari bultzada emateko ezinbestekoak.

Egitasmoa bi taldeekin egin da batez ere:

- 1.- **Merkatari eta ostalariak.** Euren zerbitzua euskaraz ere eskaintzea balio erantsia delako eta herritar gehiagorengana hel daitekeelako.
- 2.- **Bezero eta kontsumitzaileak.** Gizarte-eskaera suspertzeko.

4.4.1. HIZKUNTZA PAISAIA

Hizkuntza-paisaiak, herrialde batean hizkuntza nola erabiltzen den adierazten du; hein batean, hizkuntzaren neurgailu gisa ere hartu ahal da kontzeptua.

Getxoko auzoetako biztanleen hizkuntza erabilerak ez du hizkuntza-paisaian zuzenean eragiten.

Merkataritza-establezimenduak hizkuntza-paisaiaren arabera

Honako taulan, 2002. urtetik Getxoko establezimenduei errotuluak edo toloak euskaraz jarriz gero ematen zaizkien **diru-laguntzen** datuak eskaintzen dira:

	2007	2008	2009	2010
Eskaera onartuta	10 eskaera	7 eskaera	7 eskaera	21 eskaera
	12 errotulutik/ 9 euskaraz	8 errotulutik/ 8 euskaraz	10 errotulutik/ 6 euskaraz	33 errotulutik/ 25 euskaraz
Eskaera ukatuta	0 eskaera	0 eskaera	2 eskaera	0 eskaera
Eskaera guztiak	10 eskaera	7 eskaera	9 eskaera	21 eskaera

2010. urteko datuak oso positiboak dira, 33 errotulutik **25** euskaraz izan baitira.

Ondoko taulan adierazten den bezala, Getxoko hizkuntza-paisaia aztertu da. Herriko kale nagusietan dauden establezimendu mota guztiak eta dituzten errotilu, iragarki eta euskarriak izan dituzte aztergai hizkuntzen erabilera neurtzeko:

ELEMENTUA	EUSKARAZ	EUSKARAZ NAGUSIKI	ELEBIETAN	GAZTELANIAZ NAGUSIKI	GAZTELANIAZ	BESTERIK	OROTARA
Errotulu nagusia	102(%13,2)	3 (%0,4)	48 (%6,2)	3 (%0,4)	433 (%55,5)	190 (%24,4)	780
Atea	41 (%9,4)	22 (%5,1)	70 (%16,1)	5 (%1,2)	294 (%67,7)	2 (%0,5)	434
Erakusleihoa	62 (%3,6)	15 (%0,9)	83 (%4,9)	1 (%0,1)	1.526 (%89,6)	17 (%1)	1.704

Batez ere, establezimenduetako *errotulu nagusietan* ikusten da euskararen presentzia Getxoko kaleetan. Egia da ateetako elementu batzuk ere elebietan daudela.

Ibilbideen arteko aldeak, auzo bakoitzean topa ditzakegun establezimendu motekin zerikusi zuzena dute, euskararen erabilera eta presentzia establezimendu motaren arabera aldatu egiten da eta.

	EUSKARAZ	EUSKARAZ NAGUSIKI	ELEBIETAN	GAZTELANIAZ NAGUSIKI	GAZTELANIAZ	BESTERIK
1. ibilbidea	%2,7	%1,7	%4,7	%0,1	%78,3	%12,5
2. ibilbidea	%7,4	%0,9	%4,1	%0,5	%73,7	%13,4
3. ibilbidea	%8,9	%1,3	%8,1	%0,4	%77,1	%4,2

Ibilbide bakoitzean aztertu diren elementu guztiak kontuan izanda, **3. ibilbidean** dauzkagu, batez ere, euskarazko elementuak. Ibilbide horretako **%8,9** euskara hutsean dago.

- ✓ Agerian gelditu da Euskara Zerbitzutik egindako euskararen aldeko kanpaina, hain zuzen ere banatutako elementu hauetan: atean "*Zabalik/Itxita*" txartela edota "*Merkealdia*" eta "*Eskaintza berezia*", erakusleihoetan batik bat.
- ✓ Dendak beste enpresa handiago baten (kateak edo multinazionalak, adibidez) partaide direnean, euskarazko elementu gehiago erakusten dituzte (supermerkatuak, banketxeak...).
- ✓ Euskararen presentzia txikiagoa nabaritzen da dendariak berak jarri behar dituztenean euskarazko elementuak.
- ✓ Eragin handia sumatu da Euskara Zerbitzuak ematen dituen diru-laguntzak establezimenduetako errotiluak euskaraz jartzeko orduan.

4.5.ELKARTEAK

Udalak kultur elkarteek euskararen alorrean egiten duten lana eta egoera ezagutu nahi du; alde batetik, elkarteen jarduna sustatzeko eta, bestetik, hizkuntza ofizial bien erabilera bermatzeko.

Horretarako, lehenbizi, gure herrian diharduten kultur taldeek euskaraz egiten duten lana ezagutarazi eta kultur elkarteen egoeraren diagnostia egin du elkarteek euskara biziberritzeko duten garrantziagatik eta etorkizunean izan dezaketen eraginagatik.

Era berean, elkarteek antolatzen dituzten jardueren informazioa, zailtasunak eta, orokorrean, Getxoko elkarteen egoera ezagutu nahi du.


4.5.1.KULTUR ELKARTEETAN EUSKARAK DUEN PRESENTZIA

Euskararen presentziaren arabera, elkarteetan, 5 multzo bereizten ditugu.

- 1. taldea:** Erabat euskaldunak edo oso euskaldunak diren elkarteak.
- 2. taldea:** Nahiko euskaldunak diren elkarteak. Gaztelania erabiltzen da, baina euskararen presentzia handia da.
- 3. taldea:** Euskararen presentzia duten elkarteak. Euskara erabiltzen da, nahiz eta gaztelania nagusi izan.
- 4. taldea:** Harremanetan, euskararen presentzia txikia. Kanpoko komunikazioak euskaraz egiten dira.
- 5. taldea:** Euskararen presentziarik ez dago.


Elkarrizketatutako elkarteak honela banatuko ditugu euskararen presentziaren arabera:

EUSKARAREN ERABILERAREN ARABERAKO TALDEAK



Iturria: Diagnosti honetarako propio jasotako datuak

HAUR ETA GAZTEEKIN EGITEN DITUZTEN JARDUERETAN EUSKARAREN ERABILERAREN ARABERAKO TALDEAK




Iturria: Diagnosi honetarako propio jasotako datuak

Lehenengo datuak kontuan izanda, hurrengo ondorioak atera daitezke:

- ✓ Elkarteen %46an, ez da inoiz edo ia inoiz euskara erabiltzen ahozko harremanetarako.
- ✓ Elkarteen herena, %34 oso euskalduna edo nahiko euskalduna dela esan daiteke, nahiz eta gaztelania erabiltzen den.

Elkarte guztiak aztertuta, euskararen erabilera askoz handiagoa da haur eta gazteekin dihardutenetan. Erabat euskaldunak diren elkarten ehunekoa parekoa da, baina oso edo nahiko euskaldunak diren elkarten bigarren talde horretan bikoiztu egiten da portzentajea.


BOLUNTARIOEN EUSKARA MAILA



Iturria: Diagnosi honetarako propio jasotako datuak

Getxoko elkarteetako boluntarioen euskara maila oso baxua da.

HAUR ETA GAZTEEKIN JARDUERETAN PARTE HARTZEN DUTEN BOLUNTARIOEN EUSKARA MAILA



Iturria: Diagnosi honetarako propio jasotako datuak

Oharra: Boluntarioen euskara maila ezagutzen diren kasuetatik ateratakoak (3 elkartetan datu hauei buruz ez dute erantzun)

- ✓ Euskararen erabilerari dagokionez, **alde handia dago** Getxoko kultur elkarten artean.
- ✓ Euskararen **presentzia handiagoa** dagoen kultur elkarteetan, normalean **gaztez osatutakoak** dira edota, **euskal kulturaren** esparruan aritzen diren elkarteak dira.
- ✓ Beraz, **hezkuntza ereduak eragin handia du askotan**, nahiz eta beste kasuetan eraginik ez izan erabileran, euskara gaitasunean badu. (B eta D ereduak euskara ikasi izanak ez dakar erabileran eragin handirik kasu batzuetan).
- ✓ Elkarten artean euskararekiko errefusatzetik ez badago ere, **elkarte gehienetan ez da euskararekiko ahaleginik egiten**, oso zail ikusten baitute euskararen presentziak gora egitea, gaitasun eta motibazio faltagatik.
- ✓ Elkarte gehienetan, **izena euskaraz** da eta errotulu nagusietan, euskara gaztelania baino gehiago erabiltzen da.
- ✓ Ekitaldiak iragartzeko kartelak %75 euskaraz dira eta, elkarteetan dauden **webguneetako edukiak %23** euskaraz dira.
- ✓ Nahiz eta kide gehienek euskaraz ez hitz egin eta euskararen presentziarik ez egon, **kanpora begira egiten diren komunikazioetan, gero eta gehiago erabiltzen da** euskara. Egiten diren idatzizko komunikazioetatik, %46 euskaraz dira, nahiz eta ahozko komunikazioetan euskararen egoera zeharo ezberdina izan.
- ✓ Kultur elkarte handiek, Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuak eskaintzen dituen laguntzen berri dute, baina laguntza horiek ezagutarazteko egin diren ahaleginak handiak izan badira ere, hainbat elkartetako ordezkariak ez zituzten ezagutzen laguntza hauek.


4.5.2. EUSKARAREN PRESENTZIA KIROL ELKARTEETAN

GEHI: Getxo Euskalduntzeko Hitzarmena: Getxon, 127 kirol elkarte daude. Horietatik, 29k GEHITU HITZARMENA sinatu dute (% 23).

Hitzarmen horren bitartez euskararen erabilera areagotzearen alde lan egiteko borondatea azaltzen dute, konpromiso batzuk hartuz: idatzizko zein ahozko elementuetan euskara eta gaztelaniaren erabilera gutxienez parekoa izatea; entitateko partaide ez euskaldunak euskalduntzeko ahaleginak egitea; jendaurreko ekintzetarako aurkezle elebidunak eskaintzea; Udal Euskara Zerbitzuarekin batera, euskararen egoeraren jarraipena egitea, eta abar.


Honako hauek dira GEHI hitzarmenaren barnean dauden kirol elkarten 2008-2009 ikasturterako neurrien erradiografia:

ELKARTEAREN KARTELAK ELEBITAN. EUSKARAK LEHENTASUNA




Iturria: Bizarra Lepoan (2009)

ENTRENATZAILE EUSKALDUNEK UME TXIKIAK ENTRENATUKO DITUZTE



Iturria: Bizarra Lepoan (2009)

ENTRENATZAILE EUSKALDUNAK



Iturria: Bizarra Lepoan (2009)

Entrenatzaileak oso kasu gutxitan mintzatzen dira euskaraz.

Bestelako datu batzuk:

EKINTZAK:	BAI		EZ	
	Abs	%	Abs	%
Bazkideentzako eskutitzak elebitan, eta euskarak lehenetasuna	16	55,2	13	44,8
Entrenamenduak euskaraz	14	48,3	15	51,7
Web orria euskaratu	8	27,6	21	72,4
Elkartearen egiteko guztiak euskaraz (ere) izango dira	6	20,7	23	79,3
Entrenatzaile batek ala gehiagok doan ikasiko du euskaltegian	2	6,9	27	93,1

Datu horietaz gain, honako koadroan Getxoko kirol elkarteetan, 2005. urtean euskararen presentzia zein zen ikusten da:

KIROL ELKARTEETAKO ERAGILEEN EUSKARAREN EZAGUTZA MAILA. EHUNEKOAK


	Zuzendaritza kideak	Kirol elkarteetako bazkideak	Soldatapeko enplegatuak	Monitore begiraleak
Euskaldunak	%25,3	%20,3	%64	%59,3
Ia euskaldunak	%22,4	%3,3	%11,8	%6,4
Erdaldunak	%50,8	%14,5	%24,3	%21,9
Ed/Ee	%1,5	%61,9	-	%12,5
Eragile mota hau duten elkarteak	%100	%50	%24	%78

Iturria: "Getxoko kirol esparruan euskara sustatzeko egitasmoa" Siadeco (2005)

Egitasmoan parte hartu duten elkarteetako kideek azaldutako euskararen ezagutza maila oso desberdina da entitate horretan betetzen duten funtzioaren arabera. Horrela, euskaldunen ehunekorik altuenak soldatapeko enplegatuen artean eta monitore/begiraleen artean daude, bi arlo horietan dabilzan 10 lagunetik 6 euskaldunak direla adierazi baitigute. Zuzendaritza kideen artean, aldiz, euskaldunen ehunekoa %25 ingurukoa dela erantzun dute.

Getxoko biztanleriaren %30 euskalduna dela kontuan izanik, oso altua dirudi soldatapeko enplegatu eta monitore/begirale euskaldunen ehunekoa. Datu hori, kirol elkarteetan euskaraz komunikatzeko gaitasuna izateak entitate horietako arduradunentzat duen garrantziaren adierazle izan daiteke.

KIROL ELKARTEETAKO ERAGILEEN EUSKARAREN EZAGUTZA MAILA. EHUNEKOAK




Iturria: "Getxoko kirol esparruan euskara sustatzeko egitasmoa" Siadeco (2005)

4.6. KULTURGINTZA

4.6.1. JAIALDIAK ETA JARDUERA NAGUSIAK

2010. urtean Getxoko Udalaren (eta beste zenbait elkarte getxotarrek bultzatuta ere) kultur eskaintza aztertu da, eta hauek izan dira emaitzak:




Iturria: Diagnosi honetarako propio jasotako datuak

- ✓ 207 jardueretatik, 89 (%43) hizkuntzarik gabekoak izaten dira: musika emanaldiak, azokak, erakusketak, etab. Dena den, musika emanaldiei dagokienez, nahiz eta hizkuntza gabeko ekintzak bezala zenbatu, urtero talde euskaldunak egon daitezen saiatzen da.
- ✓ Gainerako jardueretatik, % 20,2 euskaraz dira.
- ✓ Nahiz eta ikastaro eta hitzaldi gehienak gaztelaniaz izaten diren, %20 gutxi gorabehera euskaraz eskaintzen dira.
- ✓ 2010. urtean **67 pelikula** eskaini dira. Horietatik 12 (%18) euskaraz izan dira, 29 gaztelaniaz eta 26 beste hizkuntza batzuetan.

4.6.2. UDAL LIBURUTEGIAK

Getxoko udal liburutegiek egindako 2010eko Txostenean ondoko datu hauek jasotzen dira:


- ✓ Euskaraz idatzitako **10.858** liburu mailegatu ziren, hau da, mailegatutako liburu guztien **%10,4**.
- ✓ Euskarazko maileguak azken **4** urteetan:



Iturria: Getxoko udal liburutegietako datuetan oinarrituta egindako grafikoa

Getxoko udal liburutegietan, guztira, 2010. urtean **104.445** mailegu⁸ egin ziren, hizkuntzaren arabera horrela banatuta:

UDAL LIBURUTEGIKO MAILEGUAK HIZKUNTZAREN ARABERA 2010EAN. ABSOLUTUAK



Iturria: Getxoko udal liburutegietako datuetan oinarrituta egindako grafikoa

⁸ Maileguen artean liburuak, CDak eta pelikulak hartzen dira kontuan.

- ✓ Bestalde, udako **Udal Liburutegietan** (kalean antolatutakoak) euskarazko liburuen mailegua 2010. urtean **1.888** alekoa izan da.
- ✓ **Eskolako bisitak:** Getxoko hainbat ikastetxek, ikasturte osoan, udal liburutegiak bisitatzen dituzte, gutxienez behin. Dena den, lehen hezkuntzako bigarren mailatik ikasturte osoan hiru aldiz egin dituzte bisitak. 2010. urtean **75** bisita egin dira, horietatik **60** bisita euskaraz egin ziren (%80).

Euskaraz idatzitako 10.858 liburu mailegatu dira, hau da, mailegatutako liburu guztien %10,4.

4.6.3. GETXOKO LIBURU DENDAK

Getxon 17 liburu-denda identifikatu dira eta bati izan ezik, denei (15 liburu-dendei) deitu zaie inkesta labur bat egiteko. Liburu-saltzaileek esan digute euskarazko zenbat liburu saldu dituzten 2010. urtean, eskolako testu liburuak kontuan hartu gabe.

Liburudendak	Salmenta kop. Euskaraz
1	%35
2	%1,5
3	%20
5	%10
6	%9
7	%2
8	%10
9	%2
10	%30
11	%8
12	%30
13	%9
14	%3
15	%20
16	%10
Guztira	%12,46

Esan beharra dago liburu salmentak, orokorrean, jaitsiera nabaritu duela eta argitaletxeek gaur egun eskaintza murriztagoa daukatela. Dena den, dendarien esanetan, Getxoko Liburu Azokan liburuen salmenta igo egiten da, batez ere, haurrentzako liburuetan.

4.7. HEDABIDEAK ETA TEKNOLOGIA BERRIAK

4.7.1. HEDABIDEAK

HEDABIDE MOTAK	IZENA	% EUSKARAZ	ENTZULE/IKUSLE/IRAKURLE KOP.
Irratiak ⁹	Koska irratia	%85	Ezin da lortu datua
Aldizkariak	UK	%100	1.627 harpidedun ¹⁰
			2.062 aldizkari banatzen dira hamabostero
	Getxoberri	%100	30.000 ale astero
	Argia	%100	76 harpidedun 242 irakurle
	Gazteak	%100	30.000 ale hilero
Telebistak	11amaika telebista	%100	2.000 ikusle egunero
Egunkariak	Berria	%100	380 harpidedun
			1.200 irakurle
Digitalak	www.ukberri.net	%100	6.568 bisita hilero
			3.912 orri egunero
	www.getxo.net	%100	15.236 sarbide daude batez beste hilero euskarazko orrialdeetan
	www.ukdigitala.com	%5	Ezin da lortu datua
	www.koskairratia.com¹¹	%100	100.066 begirada osoak eginda bideo guztiei Facebook-en 3.000 lagun daukate
	www.argia.com	%100	Euskal Herri osoan 180.000 erabiltzaile

Iturria: Diagnosi honetarako propio jasotako datuak

Getxon, bertoko 8 hedabide daude: irrati bat, 3 aldizkari eta 4 hedabide digital. Guztietan agertzen da euskara eta 8 horietatik 6 euskara hutsean dira.

Beraz, Getxoko euskaldunek badute non jaso Getxoko, Uribe Kostako eta baita Bizkai, Euskal Herri eta mundu osoko informazioa euskaraz: irrati, aldizkari eta hedabide digitaletan.

Getxoko hedabide mota guztietan euskara erabiltzen da eta %75 euskara hutsez egiten da.

⁹ Getxo irratia: denboraldi luze batean musika besterik ez da egon, baina 2011ko otsailaren 7tik ordu erdiko saio bat egiten hasi da (07:45etik 08.15era) bi hizkuntzak tartekatuz.

¹⁰ Aldizkari eta egunkarien kasuan, harpidedunetatik irakurle kopurua kalkulatzeko CIESen azterketan oinarritzen gara: 3,2 irakurle aleko.

¹¹ www.koskairratia.com 2007ko apirilean zabaldu zen.


4.7.2. TEKNOLOGIA BERRIAK

2010ean Getxoko bi KZguneen hizkuntza azterketa egin da, eta datu esanguratsu hauek lortu dira:

- ✓ Getxoko bi KZguneetan, hilero, batez beste 55,8 erabiltzaile daude.
- ✓ Getxoko bi KZguneetan monitore guztiak euskaldunak dira. Algortako zentroan 6 monitore daude, eta Areetakoan 3 monitore. Horietako bat ohiko monitorea da.
- ✓ 2.035 ikastaro eskaini ziren 2007-2010 urteen artean, eta horietatik %6,3 euskaraz izan ziren.
- ✓ 2010ean guztira 381 ikastaro egin dira eta 1 besterik ez da euskaraz egin.

4.7.3. PUBLIZITATEA

2011ko otsailaren 21etik martxoaren 6a arte gutunontzien propaganda aztertu du Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuak: supermerkatu, merkataritza gune handi, komunikabide eta bestelakoen propaganda zein hizkuntzatan zegoen, hain zuzen. Emaitzetan ikusten den bezala, euskararen presentzia garrantzitsua da:



Buzoietan, propagandaren %23,3 agertzen da euskaraz edo euskaraz gehienbat.

4.8. ELIZAK

Getxon 10 eliza daude. Askok elebitasunaren aldeko apustua egin dute, nahiz eta elizako arduradunen arabera, zaila den batzuetan euskararen presentziari indar gehiago ematea.

10 elizen arduradunetatik (kasu gehienetan bertako apaizak ziren) **6** euskaldun zaharrak ziren

Mezak:

Getxoko 10 elizetatik, **4**k gutxienez astean behin meza bat euskara hutsean ematen dute, normalean Meza Nagusia (larunbatean edo igandean, elizaren arabera). Beste **3** elizek, meza bat elebitan egiten dute beti (asteburuan ere bai).

Oro har, nahiz eta Getxoko eliza guztiek mezaren bat euskara hutsean ez eskaini, guztietan entzun ditzakegu euskarazko abestiak.

Bestetik, familiako mezak edo egun berezietakoak (San Inazio egunean edo Gabonetan) eliza batzuek meza elebitan eskaintzen dituzte.

Familiak eskatzen badute, hiletak eta ezkontzak euskara hutsean egiten dira. Beste kasu batzuetan, apaizek ahaleginak egiten dituzte beti abesti batzuk euskaraz izan daitezzen edota Bibliaren pasarte batzuk euskaraz irakurtzeko.

Hurrekin egiten diren ekintzak:

Entitate hauetan zuzenean hurrekin lan egiten duten langileen hizkuntza gaitasuna oso txikia da: *Katekesietako ikastaroak*, adibidez, sarritan euskaraz eskatzen dituzte, baina gaur egun, elizen arduradunen ustez, zaila da katekista euskaldunak topatzea. Dena den, azpimarratu behar da hurrekin aritzen diren langileak normalean borondatezko langileak izaten direla eta ez soldatapekoak. Hala eta guztiz ere, badaude Getxon eliza batzuk euskarazko ikastaroak eskaintzen dituztenak.

Getxoko eliza eta parrokia gehienek *jaunartzeak* euskaraz egiteko aukera ematen dute, baina nagusiki gaztelaniaz egiten dira mota horretako ospakizunak. *Sendotza*, gehienbat, gaztelaniaz egiten da.

Aisialdi taldeak dituzten elizetan ere, askotan monitore euskaldunak falta direla diote arduradunek, nahiz eta ekintza mota horietan parte hartzen duten umeen ehuneko handi bat euskalduna den. Hala ere, ekintza batzuk euskaraz egiten dituztenen kasuan arazoa umeek berehala gaztelaniara jotzen dutela diote arduradun elkarrizketatu batzuek.

5. GETXOKO UDALA

Zalantzarik gabe, edozein herriren euskalduntze-prozesuan lehentasuna duten eremuen artean Udal-administrazioa dago, batik bat, arrazoi hauengatik:

Gizarte-bizitzaren normalizazioa bultzatu nahi bada, Udalak eredu bilakatu behar du udalerrian normalizazio-prozesuari sinesgarritasuna emateko; goi-mailako erakundeen eta herriaren arteko zubia da eta euskararen presentzia bertan normalizatzen bada, errazagoa izango da herrian euskararen aldeko mezuak **meta dinamika** zabaltzea.

Getxoko Udalean hizkuntza normalizazio-prozesua gidatuko duen egitura garrantzitsu bi sortu dira duela urte batzuk: alde batetik, egitura politikoa, Euskara Azpibatzerdea hain zuzen; eta bestetik, Euskara Zerbitzua, hizkuntza normalizazio-politika bideratuko duen egitura teknikoa.

5.1. EUSKARA ZERBITZUA

Euskara Zerbitzuko langileak: 2007an 6 langile zeuden, 2010. urtean langile kopurua bera da: 2 euskara teknikari, 2 trebatzaile, itzultzaile bat eta administrari laguntzaile bat.

Euskararako aurrekontuak:

2011. urtean Getxoko Udalaren aurrekontu osoa kontuan hartuz, Euskara Zerbitzuari **% 1,21** dagokio.

5.2. UDALA

Udalaren langileen egoera 2011. urtean ondoko taulan adierazitako datuetan ikusten da. Horrela, langileen zerrenda organikoa osatzen duten langileetatik %43,8k dute derrigortasun data ezarrita. Ehuneko hori legez ezarritako gutxiengoaren, %35aren gainetik dago.

Derrigortasun data	%43,8
Derrigortasun data eta hutsik	%14
HE egiaztatuta	%64

Udal barneko funtzionamenduan, udal langileez gain, erabilpenean eragin zuzena duen multzoa politikariena da. Zinegotzien euskara maila garrantzitsua da, hein handi batean, beraien esku egongo baita Udal-barneko hizkuntza normalizazio-prozesuaren abiadura eta hedadura udal erakundeen barnean.

Gaur egun, Getxoko Udaleko **25 politikarien** artean, **%35** gutxi gorabehera euskalduna da.